Basque Team Fundazioa

**ERREPORTAJE-SAIO BATEN IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPENA KONTRATATZEKO BALDINTZA-PLEGUA. TELEBISTAN EMATEKO IZANGO DA, ETA BASQUE TEAM FUNDAZIOKO KIROLARIEN JARDUERAK ZABALTZEA IZANGO DU XEDETZAT, 2018KO PYEONGCHANGEKO OLINPIAR ETA PARALINPIAR JOKOETAN PARTE HARTZEKO HELBURUA BAITUTE KIROLARIOK**
**(ESPEDIENTEA: 01 / 2017)**

**PLIEGO DE CONDICIONES PARA LA CONTRATACION DE LA PRODUCCION AUDIOVISUAL DE UN PROGRAMA DE REPORTAJES, PARA SU EMISION POR TELEVISIÓN Y CUYO CONTENIDO CONSISTIRÁ EN DIFUNDIR LAS ACTIVIDADES DE LOS DEPORTISTAS INTEGRADOS EN LA FUNDACIÓN "BASQUE TEAM" FUNDAZIOA QUE ASPIRAN A PARTICIPAR EN LOS JUEGOS OLÍMPICOS Y PARALÍMPICOS DE PYEONGCHANG 2018**
**(EXPEDIENTE 01 / 2017)**

## 1.- Aurrekariak

Basque Team Fundazioak goi-mailako euskal kirolaren behar bezalako garapena bultzatzea du xedetzat, era horretan nazioarteko goi-mailako kirol-lehiaketetan ordezkaritza zabala egon dadin, batez ere kirol-ekitaldi nagusietan. Horrez gain, euskal kirolariek horrelako lehiaketetan maila handiko emaitzak erdiestea ere badu helburutzat. Fundazioaren eta kirolarien irudi korporatibo egokia ezagutaraztea da helburu hori garatzeko alderdi estrategiko bat.

Basque Team Fundazioak bere proiektua eta marka gizartean are gehiago ezagutarazi nahi ditu aurrerantzean, eta hartarako, ikus-entzunezko erreportaje-saio baten sorrera sustatu nahi du, BASQUE TEAMeko kirolariek egiten dituzten jarduerak telebistan ematearren. Bereziki, 2018ko otsail eta martxoan izango diren Pyeongchangeko olinpiar eta paralinpiar jokoetan parte hartzeko aukera duten kirolariei egingo die jarraipena erreportaje-

## 1.- Antecedentes

La Fundación Basque Team Fundazioa tiene por objeto impulsar un adecuado desarrollo del Deporte Vasco de Alto Nivel que posibilite una nutrida representación en la alta competición deportiva internacional y fundamentalmente en los altos eventos deportivos; así como la consecución de resultados de alto nivel por parte de deportistas vascos y vascas en las mencionadas competiciones. Un aspecto estratégico para el desarrollo de dicho objetivo es la comunicación de una imagen corporativa adecuada de dicha Fundación y sus deportistas.

La Fundación Basque Team Fundazioa, se propone seguir comunicando su proyecto y su marca ante la opinión pública, a cuyo fin, tiene previsto promover la creación de un programa de reportajes audiovisuales, para la difusión a través de televisión de las actividades que realizan los deportistas integrados en BASQUE

sailak. Ikus-entzunezko ekoizpenean aditua den enpresa baten laguntza behar du fundazioak aipatutako saioa edo telesaila sortzeko.

Azken batean, ikus-entzunezko ekoizpenerako kontratu pribatua eskaintzea da xedea, BASQUE TEAM Fundazioari, bere kirolariei eta BASQUE TEAM markari buruzko telebistako erreportaje-saio edo dokumental-sail bat ekoizteko plegu honetan adierazitakoari jarraikiz.

Basque Team Fundazioak, euskal sektore publikoko erakundea izanik, publizitatearen, lehia askearen eta berdintasunaren printzipioak betetzea bermatu behar du kontratistak hautatzeko prozeduretan; 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan, azaroaren 14koan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzekoan, daude aurreikusita printzipio horiek (hemendik aurrera, SPKLTB). Hartarako, Fundazioaren Patronatuak jarraibide batzuk onartu ditu, eta fundazioaren webgunean (www.basqueteam.eus) daude argitaratuta, jendaurrean ezagutarazteko asmoz.

Zerbitzuen, horniduren edo bestelakoen kontratuetan –gutxienez 18.000 eurokoak eta gehienez 60.000 eurokoak badira betiere–, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua egiteko aukera baimentzen dute Kontratazio Jarraibideek. Horrelakoetan, kontratuaren xedea egiteko gaitasuna duten hiru enpresari eskatuko zaizkio eskaintzak gutxienez, eta eskaintza egiteko eskakizunen eta baldintzen agiria edo Baldintzen Plegua igorriko zaie.

TEAM. En particular, la serie de reportajes se centrará en el seguimiento de los y las deportistas con posibilidades de participar en los Juegos Olímpicos y Paralímpicos de PyeongChang, que se disputarán en febrero y marzo de 2018. Para la creación de este programa o serie televisiva, la Fundación precisa de la colaboración de una empresa especializada en producción audiovisual.

Se trata en definitiva de ofertar un contrato privado de producción audiovisual, cuyo objeto es la producción de un programa de reportajes o serie documental de televisión, relativa a la Fundación BASQUE TEAM Fundazioa, sus deportistas y su marca BASQUE TEAM en los términos que se indican en el presente pliego.

La Fundación Basque Team Fundazioa, como entidad del sector público vasco, debe someter sus procedimientos de selección de contratistas a los procesos que garanticen el respeto a los principios de publicidad, libre concurrencia e igualdad, previstos en el Real Decreto Legislativo 3/2011 de 14 de noviembre por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (en adelante TRLCSP). A tal fin, por acuerdo del Patronato de la Fundación, se encuentran aprobadas unas Instrucciones de que se han publicado en la página web de la Fundación, www.basqueteam.eus para conocimiento público.

Señalan las Instrucciones de

Nolanahi ere, baldintzen agirian edo pleguan enpresekin negoziatu beharreko arlo ekonomiko eta/edo teknikoak zehaztu behar dira, baita, dagokionean, esleitzeko irizpideak eta berorien haztapena ere.
Fundazioko langile teknikoek proposamena egingo dute; aurkeztutako proposamenak barnean hartuko ditu horrek, beheranzko ordenan sailkatuta, baldin eta neurrigabetzat edo anormaltzat jo ez badira, eta negoziatu beharreko alderdi ekonomikoak eta/edo teknikoak kontuan hartuta edo, hala dagokionean, esleitzeko irizpideei eta haien haztapenari jarraikiz; horrez gain, ekonomikoki onuragarriena den eskaintza ere zehaztuko dute, baita horren guztiaren arrazoiak azalduko ere.

Teknikariek idatziz jasoko dituzte egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak eta horiek onartzeko edo baztertzeko arrazoiak,
baita eginiko negoziazioak ere. Esleipena parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Kontratuaren formalizazioa
kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Contratación que en los contratos de servicios, suministros y otros por importe igual o superior a 18.000 euros e igual o inferior a 60.000 euros es posible un procedimiento negociado sin publicidad. En este supuesto, se solicitarán ofertas, al menos, a tres empresas capacitadas para la realización del objeto del contrato, con envío del documento de requisitos y condiciones para la formulación de la oferta o el Pliego de Condiciones.

En todo caso, en el documento o Pliego de Condiciones se deben determinar los aspectos económicos y/o técnicos que habrán de ser objeto de negociación con las empresas, así como en su caso, los criterios de adjudicación y su ponderación. El personal técnico de la Fundación elevará propuesta en la que se
contenga relación de proposiciones presentadas, clasificadas por orden decreciente, que no hayan sido declaradas desproporcionadas o anormales, atendiendo a los aspectos económicos y/o técnicos objeto de negociación o, en su caso, a los criterios de adjudicación y su ponderación, así como la identificación de la oferta económicamente más ventajosa, todo ello de forma motivada.

Se dejará constancia de las invitaciones cursadas, de las ofertas recibidas, de las
razones para su aceptación o rechazo y de las negociaciones efectuadas. La adjudicación se notificará a la totalidad de los participantes y, simultáneamente, se publicará en el perfil de contratante.

La formalización del contrato se publicará
en el perfil de contratante.

**2.- Eskaintzen den kontratuaren izaera juridikoa**

Kontratista hautatzeko jarraitutako prozedura zein eskaintzen den kontratuaren oinarrizko baldintzak zuzentzen dituzten gainontzeko prozedura publikoak alde batera utzi gabe, kontratu pribatua izango da, SPKLTBren 20.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontratu pribatua honako hauek zuzenduko dute: baldintza-plegu honetan zein haren enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzan ezarritakoak eta, horiek ezean, obraren errentamendu-kontraturako indarrean den legeriak xedatutakoak.

**2.- Naturaleza jurídica del contrato que se oferta**

Sin perjuicio del procedimiento seguido para la selección del contratista, así como de los demás procedimientos públicos que rigen la conformación de las condiciones básicas del contrato que se oferta, éste se configurará como un contrato privado, según se establece en el artículo 20.1º TRLCSP.

El contrato privado se regirá por lo establecido en el presente pliego de condiciones, en la oferta presentada por la empresa adjudicataria del mismo y en su defecto, por lo establecido en la legislación vigente para el contrato de arrendamiento de obra.

**3.- Kontratuaren xedea**

Kontratu honen enpresa adjudikaziodunak telebistan emateko moduko ikus-entzunezko erreportaje edo saio kopuru jakin bat sortu beharko du, ondoren azaldutako edukiak eta ezaugarriak beteta, eta Basque Team Fundazioak konpromisoa hartzen du saio horien truke prezio zehatza ordaintzeko (ondoren adieraziko da hori).

Kontratu honen xede diren ikus-entzunezko saioek honako ezaugarri tekniko hauek dituzte:

- Iraupena: 10 minutu saioko
- Saio kopurua: 6 (SEI)
- Aldizkakotasuna: hamabost egunean

**3.- Objeto del Contrato**

La empresa adjudicataria del presente contrato se obligará a producir un determinado número de reportajes o programas audiovisuales aptos para su emisión por televisión, con el contenido y características que se describen a continuación y la Fundación Basque Team Fundazioa se compromete a pagar un precio cierto, que después se dirá, por dichos programas.

Las características técnicas de los programas audiovisuales objeto del presente contrato son los siguientes:

- Duración: 10 minutos por programa
- Numero de programas: 6 (SEIS)

behin

- Halaber, ekoitzitako saio bakoitzarekin batera, enpresa adjudikaziodunak minutu bateko bi mikroespazio ere editatu beharko ditu, saioaren berri emateko erabil daitezen; ekoitzitako saioaren une nabarmenenak jasoko dituzte mikroespazio horietan. Horrez gain, 40 segundoko promo orokor bat ere editatu beharko dute sustapen modura erabiltzeko.
- Xedea: Basque Team Fundazioko kirolariek Pyeongchangeko 2018ko olinpiar eta paralinpiar jokoei begira zer jarduera egiten dituzten ezagutaraztea eta, horren bitartez, Basque Team markaren publizitatea egitea.
- Lotutako balioak: Goi-mailako euskal kirola. Konpromisoa, ahalegina, nork bere burua gainditzeko grina, egindako lorpenaren harrotasuna, eliteko kirolari talde bateko kide izatea, Euskadi ordezkatzea nazioartean.
- Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak
- Protagonistak: Basque Teameko kirolariak, entrenatzaileak, teknikariak, Basque Teamek egindako jarduerak
- Kontratuaren prezioak barnean hartzen dituen gastuak:
  - Talde teknikoa: zuzendaria, erredaktorea, ekoizpena, errealizazioa.
  - Talde artistikoa: off-eko ahotsa
  - Behar teknikoak: Produkzioaren ostekoa, ENG grabazioa, produkzioaren osteko audioa, grafismoa, azpitituluak.
  - Dietak, bidaiak eta beste gastu batzuk (kirolariak nazioarteko lehiaketetan jarraitzea eta grabatzea izan ezik).

- Periodicidad: cada quince días
- Adicionalmente, junto con cada programa producido, la empresa adjudicataria deberá editar y entregar dos microespacios de 1 minuto de duración cada uno, que servirán para publicitar el programa, a modo de “highlights” o momentos más destacados del programa producido. Además se deberá editar una promo genérica de 40 segundos de duración para utilizarla como elemento de promoción.
- Objeto: Dar a conocer las actividades de los deportistas integrados en la Fundación Basque Team, de cara a los Juegos Olímpicos y Paralímpicos de PyeongChang 2018 y a través de ellos, publicitar la marca “Basque Team”
- Valores asociados: Deporte vasco de alto nivel. Compromiso, esfuerzo, afán de superación, orgullo del logro conseguido, pertenencia a un equipo de deportistas de élite, representación vasca a nivel internacional.
- Versiones en Euskara y Castellano
- Protagonistas: Deportistas de Basque Team, entrenadores, técnicos, actividades realizadas por Basque Team
- Gastos incluidos en el precio del contrato:
  -Equipo técnico: Director, redactor, producción, realización,
  -Equipo artístico: Voz en off
  -Necesidades técnicas: Post producción, ENG Grabación, Audio post producción, grafismo, subtítulos
  -Dietas, viajes y otros gastos (Excepto el seguimiento y grabación a deportistas en competiciones internacionales)

**4- Gauzatzeko epea**

Enpresa adjudikaziodunak ZORTZI (8) ASTEko epea izango du gehienez lehen saioa aurkezteko (1. saioa), kontratu honen adjudikazioa jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, pleguaren 8-b) atalean ezarritakoa hargatik eragotzi gabe.

Gainerako 5 saioak (BOST) (2. saiotik 6. saiora arte) hilero emango dituzte, modu jarraituan eta kontratua esleitu ondorengo urtean zehar.

**5.- Prezioa**

Basque Team Fundazioak **36.000 €** (**HOGEITA HAMASEI MILA EURO**), gehi dagokion BEZa, ordainduko dio enpresa adjudikaziodunari saio guztiak ekoizteagatik eta ikus-entzunezko lanak zabaldu ahal izateko behar diren eskubide guztiak fundazioaren alde lagatzeagatik. Hilero egingo da ordainketa, zenbateko bereko 6 ordainketa eginez, saio bakoitza aurkeztu eta Basque Teamek onartu ondoren.

Hala eta guztiz ere, enpresa adjudikaziodunak egiten duen eskaintza zehatzak finkatuko du kontratuaren behin betiko prezioa, plegu honen 8-a) atalean azalduta dagoen moduan.

**4 - Plazo de Ejecución**

La empresa adjudicataria dispondrá de un plazo máximo de OCHO (8) SEMANAS para presentar el primer programa (programa nº 1), a contar desde la fecha de comunicación de la adjudicación del presente contrato, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 8-b) del presente pliego.

Los restantes 5 (CINCO) programas siguientes (desde el programa nº 2 hasta el programa nº 6) serán entregados con una periodicidad mensual y de forma continuada a lo largo del año siguiente a la adjudicación del contrato.

**5.- Precio**

La Fundación Basque Team Fundazioa abonará a la empresa adjudicataria un importe total máximo de **36.000 €** (**TREINTA Y SEIS MIL EUROS**) más su correspondiente IVA, por la producción de todos los programas y la cesion a favor de la Fundación de cuantos derechos sean precisos para posibilitar la difusión de las obras audiovisuales. El pago se librará mensualmente, mediante 6 pagos fraccionados e iguales, una vez presentado y aprobado cada programa por Basque Team.

No obstante lo anterior, el precio definitivo del contrato vendrá fijado por la oferta concreta que la empresa adjudicataria realice, en los términos que se exponen en el apartado 8-a) del presente pliego.

**6.- Otras condiciones de la**

**6.- Kontratazioaren beste baldintza batzuk**

Kontratua gauzatzen den bitartean, Basque Team Fundazioak eskubidea du zerbitzua zuzen egiten ari direla egiaztatzeko, eta zerbitzu hori plegu honetara eta esleipendunaren eskaintzara egokitzen dela egiaztatzeko.

Kontratu honetan, pleguan eta onartutako eskaintzan zehaztutako lanak garatzeko baldintzen aldaketa oro baimendu ahal izango du fundazioak. Aurreikusi gabeko edozein gorabehera jakinarazi beharko dute eta, hala badagokio, aipatutako fundazioak onartu beharko du.

**7.- Kontratua adjudikatzeko prozedura**

Kontratu hau publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez adjudikatuko da, Patronatuak kontratazioari buruz onartutako arauetan xedatutakoaren arabera. Fundazioaren webguneko kontratatzailearen profilean daude arau horiek ikusgai (www.basqueteam.eus).

BASQUE TEAM Fundazioak ikus-entzunezko ekoizpenaren sektoreko hiru enpresari igorriko die gutxienez plegu hau. Prestigio aitortua izango dute horiek, eta esperientzia egiaztatua telebistan goi-mailako kalitatean emateko programak ekoizten.

**contratación**

Durante la ejecución del contrato, la Fundación Basque Team Fundazioa se reserva el derecho de verificar la corrección de la prestación y la adecuación de la misma a los presentes pliegos y a la oferta de la empresa adjudicataria.

La Fundación podrá autorizar cualquier alteración de las condiciones en que se desarrollen los trabajos especificados en el presente contrato, en el pliego y en la oferta aceptada. Cualquier circunstancia imprevista deberá ser comunicada y, en su caso, aprobada por la mencionada Fundación.

**7.- Procedimiento de adjudicación del contrato**

El presente contrato se adjudicará mediante procedimiento negociado sin publicidad, según se establece en las normas sobre contratación aprobadas por el Patronato y expuestas en el perfil del contratante de su página web (www.basqueteam.eus)

La Fundación BASQUE TEAM Fundazioa, remitirá el presente pliego al menos a tres empresas del sector de la producción audiovisual y de reconocido prestigio, con experiencia contrastada en la producción de programas para su emisión por televisión en alta calidad.

Junto con el presente pliego, se enviará a las citadas empresas una carta y un briefing invitándoles a realizar una oferta por sus servicios,

Plegu honekin batera, gutun eta txosten bana bidaliko zaie aipatutako enpresa horiei, eta zerbitzuen eskaintza egiteko eskatuko, 8. atalean adierazitakoari jarraikiz betiere.

Hala nahi duten enpresek plegu hauen 9. atalean adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte plegu hau jasotzen duten egunetik **2017ko apirilaren 7**ra arteko epearen barruan, Basque Team Fundazioaren egoitzan: Getxo,

Makaletako etorbidea z.g. (Fadurako Hobekuntza Teknikorako Zentroa – 94 656 41 70 telefonoa).

**8.- Kontratua esleitzeko irizpideak**

Basque Team Fundazioak, jasotako eskaintzak eta haiei atxikitako agiriak ikusita, plegu honen xede den kontratua adjudikatuko du, esleitzeko irizpide hauekin bat etorriz:

a) Zerbitzuak egiteko prezioa (10 puntu gehienez). Plegu honen 5. klausulan adierazitako lizitazioko gehieneko prezioa murriztea baloratu egingo da; zehazki, puntu bat emango da prezio hori jaitsitako 1.500 € bakoitzeko (10 puntu gehienez).

b) Gauzatzeko epea (10 puntu gehienez). Lehen saioa emateko epea murriztea baloratuko da. Hala bada, bi puntu emango dira plegu honen 4. klausulan adierazitako gehieneko epea murrizten den aste bakoitzeko (10 puntu gehienez).

c) Proposamenaren kalitatea eta

en los términos que se señalan en el apartado 8.

Las empresas interesadas, deberán presentar la documentación que se señala en el apartado 9 de los presente pliegos, dentro del plazo que comienza el día de la recepción del presente pliego y finaliza el próximo **7 de abril de 2017**, en la sede de la Fundación Basque Team Fundazioa, sita en Fadura-Getxo,

Avenida de los Chopos s/n (Centro de Perfeccionamiento Técnico de Fadura), teléfono 94 656 41 70.

**8.- Criterios de adjudicación del contrato**

La Fundación Basque Team Fundazioa, a la vista de las ofertas que se reciban y de la documentación que se acompañe a las mismas, adjudicará el contrato objeto del presente pliego, conforme a los siguientes criterios de adjudicación:

g) Precio de realización de los servicios (máximo 10 puntos). Se valorará la reducción del precio máximo de licitación, señalado en la cláusula 5 del presente pliego, a razón de un punto por cada 1.500 € de reducción sobre el precio de licitación, hasta un máximo de 10 puntos.

h) Plazo de ejecución (máximo 10 puntos). Se valorará la reducción del plazo de entrega del programa nº 1, a razón de dos puntos por cada semana de reducción sobre el máximo señalado en la cláusula 4 del presente pliego, hasta un máximo de 10 puntos.

originaltasuna (gehienez 20 puntu). Telebista-saioaren proposamenean azaldutako originaltasuna, kalitate teknikoa zein komunikatzeko eta eragiteko ahalmena baloratuko dira. Hartarako, enpresa lizitatzaileek lehen saioaren (1. saioa) zirriborro, *script* edo proiektu bat aurkeztu beharko dute, idatziz, eta lehen erreportajearen edukiak eta gidoia zehatz-mehatz adierazteaz gain, produktuaren ezaugarri teknikoak eta ekoizpenera bideratuko diren baliabide teknikoak ere azalduko dituzte horretan.

d) BASQUE TEAM markari lotutako mezua eta balioak (10 puntu gehienez). Telebistako saioaren bitartez helarazi nahi duten mezua zein markari loturiko balioak ere baloratuko dira. Hartarako, enpresa lizitatzaileek lanaren helburuak barnean hartzen dituen txostena aurkeztu beharko dute, Fundazioak baloratu dezan.

e) Telebistan emateko ikus-entzunezko lanak ekoizteko esperientzia (10 puntu gehienez). Telebistan edo bestelako plataformetan emateko ikus-entzunezko lanak ekoizteko esperientzia baloratuko da. Hartarako, enpresa adjudikaziodunek jardueren curriculum laburra aurkeztu beharko dute, egin dituzten lanetako batzuk zehazturik.

f) Kirolarekin zerikusia duten ikus-entzunezko lanak ekoizteko esperientzia (10 puntu gehienez). Kirolaren arloan programak ekoizten egiaztatutako esperientzia baloratuko da.

Gehieneko balioa, guztira: **70 puntu**

Calidad y originalidad de la propuesta (máximo 20 puntos). Se valorarán la originalidad, calidad técnica ofertada y la capacidad comunicadora y de impacto que se formule en la propuesta del programa de televisión. A tal fin, las empresas licitadoras deberán presentar un boceto, script o proyecto del primer programa o programa nº1, por escrito, en el que se describirán con detalle los contenidos y guion del primer reportaje, así como una descripción de las características técnicas del producto y los recursos técnicos que se pondrán a disposición de la producción.

Mensaje y valores asociados a la marca BASQUE TEAM. (máximo 10 puntos) Se valorarán tanto el mensaje como los valores asociados a la marca que se pretendan transmitir a través del programa de televisión. A tal fin, las empresas licitadoras deberán presentar una memoria de los objetivos de su trabajo para que sea valorado por la Fundación.

k) Experiencia en producción de obras audiovisuales para su emisión en televisión: (máximo 10 puntos) Se valorará la experiencia en la producción de obras audiovisuales destinadas a su emisión en televisión u otro tipo de plataformas, a cuyo fin las empresas adjudicadoras deberán presentar un breve currículum de sus actividades, enumerando algunos de los trabajos realizados.

Experiencia en la producción de obras audiovisuales relacionados

con el deporte: (máximo 10 puntos): Se valorará la experiencia acreditada en producción de programas en el ámbito deportivo.

Valoración total máxima: **70 puntos**

**9.- Enpresa eskaintzaileek aurkeztu behar duten dokumentazioa**

Enpresa lizitatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- **A gutun-azalean** (kanpoan argi irakurriko da honako hau: **«A GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN TEKNIKOA ETA EKONOMIKOA»**), honako hauek jasoko dituzte: behin betiko eskaintza ekonomikoa, lehen saioa gauzatzeko epearekiko konpromisoa, egin beharreko lehen saioaren deskribapen-proiektua, amaierako produktuaren azalpen teknikoa eta baliabide tekniko erabilgarriak, proiektuaren helburuen txostena eta enpresaren curriculum laburra; guztia aurreko 8. atalean adierazitako moduan.

- **B gutun-azalean** (**«B GUTUN-AZALA: ADMINISTRAZIO-AGIRIAK»** izango du idatzita) honako honen egiaztagiriak –jatorrizkoak edo kopiak– jasoko dituzte:

Enpresaren nortasun juridikoa eta, hala dagokionean, haren ordezkaritza (eratzeko eskritura, IFK txartela, ahalordeak, etab.).

SPKLTBren 73.1 artikuluan azaltzen den kontratatzeko debekuren baten

**9.- Documentación que deben presentar las empresas oferentes**

Las empresas licitadoras deberán presentar la siguiente documentación:

- **En un sobre "A",** identificado exteriormente de forma clara con la inscripción **"SOBRE A: PROPUESTA TÉCNICA Y ECONÓMICA"** se incluirá la correspondiente oferta económica definitiva, el compromiso con el plazo de ejecución del primer programa, un proyecto descriptivo del primer programa a realizar, la descripción técnica del producto final, y los medios técnicos disponibles, una memoria de los objetivos del proyecto y un breve currículum de la empresa, todo ello en los términos que se han señalado en el apartado 8 anterior.

- **En otro sobre "B"** señalado con la inscripción "**SOBRE B: DOCUMENTACION ADMINISTRATIVA"** se incluirá la documentación (original o copia de la misma) que acredite, lo siguiente:

La personalidad jurídica de la empresa y, en su caso, su representación (escritura constitución, tarjeta CIF, poderes, etc.).

eraginpean ez dagoela frogatzen duen agiria (kontratuaren erreferentzia berariaz aipatu behar da).

Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin zorretan ez egotea egiaztatzen duten ziurtagiria.

**10.- Kontratazio Mahaia**

Kontratazio Mahaian honako

hauek izango dira: 1.-

Fundazioaren Patronatuko

idazkaria.
2.- Fundazioaren koordinatzailea.
3.- Fundazioko komunikazio-arduraduna.
4.- Kanpoko aholkulari bat, aditua ikus-entzunezko komunikazioaren arloan.

Kontratazio Mahaiak kide anitzeko organo moduan jardungo du, printzipio demokratikoaren arabera. Patronatuko idazkariak kalitateko botoa izango du. Fundazioko aholkulari juridikoa izango da batzordeko idazkaria; hitz egiteko eskubidea izango du horrek, botoa ematekoa ez, ordea.

Kontratazio Mahaiak, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta 15 eguneko epearen barruan bilduta eta aurkeztutako eskaintzak zein haiei atxikitako agiriak ikusita, kontratua adjudikatzeko erabakia hartuko du.

La acreditación con mención expresa de la referencia del contrato de no estar incursa en ninguna de las prohibiciones de contratar según se establece en el artículo 73.1º TRLCSP

Certificación de estar al corriente en el pago con la Seguridad Social y con Hacienda.

**10.- Mesa de Contratación**

La Mesa de contratación estará

compuesta por las siguientes

personas: 1.- El Secretario del

Patronato de la Fundación
2.- La Coordinadora de la Fundación
3.- La responsable de comunicación de la Fundación
4- Un asesor externo, experto en materia de comunicación audiovisual

La Mesa de Contratación actuará de forma colegiada y se regirá por el principio democrático. El Secretario del Patronato tendrá voto de calidad. Actuará como Secretario de la Mesa de Contratación, con voz pero sin voto en la misma, el asesor jurídico de la Fundación.

La Mesa de contratación reunida dentro del plazo de 15 días a partir del cierre del plazo para la presentación de ofertas y a la vista de las ofertas presentadas y de la documentación acompañada, adoptará el acuerdo de adjudicación del contrato. Se adjudicará el contrato a la oferta que presente una mayor puntuación según los criterios señalados en el apartado 8.

Kontratua adjudikatuko zaio puntu gehien bildu dituen eskaintzari, 8. atalean adierazitako irizpideen arabera betiere.

Basque Team Fundazioak adjudikazioa enpresa adjudikaziodunari jakinaraziko dio, eta 10 egun balioduneko epea emango dio kontratua formalizatzeko.

Halaber, kontratazio-mahaiaren ebazpena jakinaraziko dio Fundazioak gainerako enpresa eskaintzaileei, baita baztertzeko arrazoiak ere.

**11.- Jabetza intelektuala**

Ustiapen ekonomikoa izan dezaketen kontratu honetako programen gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak eskuratuko ditu Basque Team Fundazioak kontratazio honen bidez.

Fundazioak baino ez ditu izango eskubide horiek, edozein ustiapen eta/edo euskarri motaren gainean. Beraz, ekoizpen-formatu originala erreserbatuta du, baita saioak zabaltzeko, erakusteko edo beste edozein dibulgaziorako beharrezkoak diren erreprodukzioak egiteko ahalmena ere. Eta behar diren jabetza-intelektualeko eskubide guztiak emango dizkio enpresa adjudikaziodunak Basque Team Fundazioari.

Eskubide horiek Fundazioarenak izango dira egungo legeriak aurreikusitako eperik luzeenean, eta, ondoren, jabari publiko bihurtuko dira; unibertsalak izango dira eta hizkuntza guztietan. Honako hauek dira bereziki

La Fundación Basque Team Fundazioa comunicará la adjudicación a la empresa adjudicataria, concediéndoles un plazo de 10 días hábiles para formalizar el contrato.

Asimismo, la Fundación comunicará a las demás empresas oferentes, la resolución de la Mesa de Contratación y las razones de su exclusión.

**11.- Propiedad Intelectual**

Mediante la presente contratación la Fundación Basque Team Fundazioa adquirirá todos los derechos de propiedad intelectual susceptibles de explotación económica sobre los programas objeto del presente contrato.

Tales derechos se adquieren en régimen de exclusiva, sobre cualquier modalidad de explotación y/o soporte existente a la fecha. En consecuencia se reserva el formato original de producción y la facultad de llevar a cabo cuantas reproducciones considere conveniente para su difusión, exhibición o cualquier otra forma de divulgación, cediendo la empresa adjudicataria a la Fundación Basque Team Fundazioa todos los derechos de propiedad intelectual que resulten precisos.

Estos derechos se entenderán adquiridos, por el plazo más amplio previsto en la legislación actual hasta su incorporación al dominio público, con ámbito universal y en todas las lenguas. En particular, los derechos adquiridos serán los

eskuratutako eskubideak: kontratatutako lana erreproduzitzeko, banatzeko, jakinarazteko eta eraldatzeko eskubideak eta ekonomikoki ustiatu daitezkeen gainerako eskubideak.

Enpresa adjudikaziodunak edo kontratu honen xede diren zerbitzuak gauzatzen parte hartu duten pertsona fisikoek ezingo dute lana beretzat erabili, eta ezin izango diete beste batzuei kontratatutako lanaren zati, testu, marrazki edo argazkirik emango. Horrezaz gain, ezingo dute lana osorik edo zati batez argitaratu Basque Team Fundazioaren berariazko eta idatziz emandako baimenik gabe. Nolanahi ere, enpresa adjudikazioduna izango da betebehar horiek ez betetzeak dakartzan kalte eta galeren erantzulea. Kontratuaren xede diren lanen ondoriozko material guztiak ere izango dira Basque Team Fundazioaren jabetzakoak.

Getxon (Bizkaia), **2017ko martxoaren 20**an

derechos de reproducción, distribución, comunicación pública, transformación de la obra contratada y demás que puedan ser susceptibles de explotación económica.

La empresa adjudicataria o cualquiera de las personas físicas que hayan intervenido en la ejecución de los servicios objeto del presente contrato, no podrán utilizar el trabajo para sí, ni proporcionar a terceros fragmentos, textos, dibujos, fotografías del trabajo contratado, ni podrán publicar total o parcialmente el contenido del mismo sin consentimiento expreso y por escrito de la Fundación Basque Team Fundazioa. En todo caso, la empresa adjudicataria será responsable de los daños y perjuicios que deriven del incumplimiento de estas obligaciones. La totalidad de los materiales que resulten de la realización de los trabajos objeto del contrato serán igualmente propiedad de Fundación Basque Team Fundazioa.

En Getxo (Bizkaia), a **20 de marzo de 2017**